# Murgil

## Euskal Hizkuntza eta Literatura

## DBH 1






















**EREIN PROIEKTUA**

*5. Argitalpena*

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak onetsia (1996-4-19)*

Erreformarako curriculum-materialen Zuzendari pedagogikoa:
Ximon Goia

Azalaren diseinua:
Iturri

Azaleko irudia:
*OMAko basoa 1983-91*. Agustin Ibarrola

Diseinua grafikoa:
D & C

Ilustrazioak:
Marcelo Spotti, Fernando Kano, Marina Gomez, Javier de la Hoz

Argazkiak:
Jose Dueso, Eduardo Perez

© Testua:
Celia Ganzabal, Nekane Sagastume, Eduardo Perez

© EREIN 2005. Tolosa Etorbidea 107 - 20018 Donostia

ISBN: 84-7568-613-3

Inprimategia:
Grafman S.A. Gallarta (Bizkaia)

# Murgil
## Euskal Hizkuntza eta Literatura
## DBH 1

Celia Ganzabal
Eduardo Perez
Nekane Sagastume

EREIN PROIEKTUA

# AURKIBIDEA


## 1. Ikastunitatea

1. Zer moduz, lagunak? ........ 6. orr.
2. Euskal Herrian zehar ........ 14. orr.
3. Osagarriak ........ 16. orr.

## 2. Ikastunitatea

1. Zer gustatzen zaigu? ........ 18. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Euskararen egoera ........ 26. orr.
3. Osagarriak ........ 28. orr.

## 3. Ikastunitatea

1. Nola funtzionatzen du? ........ 30. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Euskal musika ........ 38. orr.
3. Osagarriak ........ 40. orr.

## 4. Ikastunitatea

1. Barnetegian ........ 42. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Barnetegiak ........ 50. orr.
3. Osagarriak ........ 52. orr.

## 5. Ikastunitatea

1. Super 1eko lagunak ........ 56. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Euskal komikia ........ 64. orr.
3. Osagarriak ........ 66. orr.

## 6. Ikastunitatea

1. Zero azpitik!! ........ 70. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Mendiak eta mitologia ........ 78. orr.
3. Osagarriak ........ 80. orr.

## 7. Ikastunitatea


1. Zein berri xelebrea ........ 82. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Euskal inauteriak ........ 90. orr.
3. Osagarriak ........ 94. orr.


## 8. Ikastunitatea


1. Zelako festa ........ 96. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Herriko jaiak ........ 104. orr.
3. Osagarriak ........ 106. orr.


## 9. Ikastunitatea


1. Gure txapelduna ........ 108. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Sukaldaritzaz ........ 116. orr.
3. Osagarriak ........ 118. orr.


## 10. Ikastunitatea


1. Zer egin daiteke? ........ 120. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Oporrak Euskal Herrian ........ 128. orr.
3. Osagarriak ........ 130. orr.


## 11. Ikastunitatea


1. Hegan egiten ez zekien elefantemea ........ 132. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Otsoa ........ 140. orr.
3. Osagarriak ........ 142. orr.


## 12. Ikastunitatea


1. Oporretan ........ 144. orr.
2. Euskal Herrian zehar: Mendia zain dezagun ........ 152. orr.
3. Osagarriak ........ 154. orr.

# 1. ZER MODUZ, LAGUNAK?




Ander nire etxe ondoan bizi da. Bere amak **badaki** gitarra jo**tzen**, eta batzuetan bere etxean abesten dugu.
Leire berria da auzoan. Aita galizi**arra** du. Orain **ez dauka** lan**ik** eta euskara ikasten ari da. Ama, berriz, euskalduna da, eta banketxe batean lan egiten du. Leire eta Manu nirekin joaten dira eskolara.
Hauek ere **gure** koadrilakoak dira. Oso atseginak dira, baina batzuetan oso astunak. Txakurra Blai da, eta Leire**ren etxean** bizi da. Ritxi katua Mirenen etxean bizi da. Sagutxoak Mutzi du izena, baina **ez dakit** non demontre bizi den.

## 1. ERANTZUN ONDORENGO GALDEREI

1. Nola dute izena lagun hauek?
2. Eta animaliek?
3. Lagun hauek ba al dakite euskaraz?
4. Nor da berria auzoan?
5. Non egiten du lana Leireren aitak?
6. Eta nongoa da?
7. Nork daki gitarra jotzen?
8. Non bizi dira animaliak?
9. Etxean baduzue animaliarik? Zer animalia?
10. Nola dute izena?
11. Nork aurkezten ditu lagunak?
12. Denak eskola berberera joaten dira?




## 2. NOLA DUTE IZENA?

| | | |
|---|---|---|
| Aitak galizieraz hitz egiten du. | Amari euskara irakasten dio. | Manuren etxean bizi da. |
| ____________ | ____________ | ____________ |
| Aita Pariskoa du. | Altsasuarra da. | Bere etxebizitza sekretua da. |
| ____________ | ____________ | ____________ |
| Leire eta Begorekin joaten da eskolara. | Kitarra jotzen du. | Mirenen etxean bizi da. |
| ____________ | ____________ | ____________ |

## 3. EGIA ALA GEZURRA? GEZURRA BADA, ZUZENDU AHOZ.

| | Egia | Gezurra |
|---|---|---|
| Bego eta Manu elkarrekin joaten dira eskolara. | | |
| Manuren gurasoek oso ondo hitz egiten dute euskaraz. | | |
| Leirek ez dauka aitarik. | | |
| Gure lagunek, batzuetan Anderren etxean abesten dute. | | |
| Mirenen aitak frantsesez daki, baina berak ez. | | |
| Saguak Ritxi du izena, eta txakurrak Blai. | | |
| Koadrila bost lagunek osatzen dute. | | |

## 4. NONGOA DA BAKOITZA?




| | |
|---|---|
| **Nongoa** da? | -Pariskoa<br>-Irungoa |
| **Nongoak** dira? | -Pariskoak<br>-Irungoak |







| IKASLEAREN IZENA | IKASLEAREN DATUAK | GURASOEN DATUAK | |
|---|---|---|---|
| | | **ama** | **aita** |
| *Blai* | *Ez dakit* | *Bilbokoa* | *Santurtzikoa* |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

## 5. NONGOTARRAK DIRA ZURE IKASKIDEEN GURASOAK?




| | |
|---|---|
| **Nongoa** | Bilbokoa / Irungoa |
| **Nongotarra** | bilbotarra / irundarra<br>durangarra / galiziarra |
| **Nongoak** | Bilbokoak / Irungoak |
| **Nongotarrak** | bilbotarrak / irundarrak<br>durangarrak / galiziarrak |

# 6. ANDERREN AMAK BADAKI GITARRA JOTZEN



*Manuk ba**daki** patin**atzen.***



*Gure lagunek ba**dakite** euskaraz hitz egi**ten.***



*Blaik **ez daki** iraku**rtzen.***



*Olanok* ______________

______________

*Nik badakit* ______________

______________

| | | | |
|---|---|---|---|
| Nik | | dakit | |
| | ez | | |
| Manuk | | daki | abe**sten** |
| | ba | | |
| Lagunek | | dakite | |



# 7. ZERRENDA BATEAN, IDATZI ZER DAKIZUN EGITEN, ETA ONDOKOARI GALDETU EA BERAK BADAKIEN ALA EZ

| Zer dakit egiten? | | Nire lagunak BAI | Nire lagunak EZ |
|---|---|---|---|
| – irakurtzen | *– Badakizu irakurtzen?* | *X* | |
| – | – | | |
| – | – | | |
| – | – | | |
| – | – | | |
| – | – | | |
| – | – | | |
| – | – | | |

- *Nire lagunak badaki irakurtzen.*
- 
- 
- 
- 
- 
- 
- 

# 8. ANTZEKO ELKARRIZKETAK ASMATU ETA ANTZEZTU








# 9. Jolasa







1. Taldeka jarri.
2. Kutxa bat lortu eta barruan zeuen gauza batzuk sartu.
3. Batek, begiratu gabe, zerbait hartu behar du.
4. Beste batek galdera bat egingo du. Adibidez:
   - Noren arkatza da?
   - Noren belarritakoak dira?
   - Norena da koadernoa?
   - Norenak dira betaurrekoak?
5. Besteak erantzuna eman behar du. Adibidez:
   - Leireren arkatza da.
   - Anderren belarritakoak dira.
   - Koadernoa Manurena da.
   - Betaurrekoak Leirerenak dira.
   - Nirea / zurea da.
   - Nireak/zureak dira.

# 10. Mirenen etxean katu bat dago!

| | | |
|---|---|---|
| Miren | katua | • *Miren**en** etxean katu bat dago.* |
| Leire | txakurra | • *Leire**ren** etxean txakur bat dago.* |
| Blai | igerilekua | • *Blai**ren** etxean ez dago igerilekurik.* |
| Ni | dinosaurioa | • |
| Nire gurasoak | garajea | • |
| Gure irakaslea | sagutxoak | • |
| Zure mahaikidea | | • |
| | | • |
| | | • |
| | | • |
| | | • |



# 11. LEIREREN AITAK EZ DU LANIK






*Hauek diru asko daukate.*



*Hauek **ez daukate** diru**rik.***



*Edalontzian ura dago.*



*Igerilekuan **ez dago** ur**ik.***




*Gauza hauek ez dauzkat.*
*Nahi duzuena oparitu.*
*Mila esker.*

- *Kalkulagailua*
- *Irristailuak*
- *Erlojua*
- *Walkmanak*
- *Euritakoa*
- *Mendirako botak*
- *Eguzkitarako betaurrekoak*
- *Oskorriren azken diska*
- *Egiptoko txanponak*

- *Anderrek **ez dauka** kalkulagailu**rik.***
- *Anderrek ez dauka irristailu**rik.***
- 
- 
- 
- 
- 
- 



## 12. Proposamenak egiten







| | | |
|---|---|---|
| Zergatik ez dugu/gara | - Futbolean | entzuten? |
| | - liburuak | jolasten? |
| | - telebista | irakurtzen? |
| | - diska | ikusten? |
| | - matematikako lanak | egiten? |
| | - igerilekura | joaten? |
| | - bokata bat | erosten? |

| ERANTZUN BATZUK | |
|---|---|
| "Bai" esateko | "Ez" esateko |
| Bale / Konforme<br>Ondo iruditzen zait<br>Ederki<br>Oso ondo<br>Primeran<br>Ez, ezin dut | Ez dut nahi<br>Ez dut gogorik<br>Ez daukat dirurik<br>Ezta pentsatu ere! |

## 13. Orain zuri tokatzen zaizu zeure aurkezpena eta zure lagunena egitea. Horretarako, kontuan hartu koadroan agertzen dena.



- Agurtu: kaixo, zer moduz? erabili.
- Informazioa eman:
  - -Nor zaren.
  - -Zenbat urte duzun.
  - -Nongoa zaren.
  - -Non bizi zaren.
  - -Zer dakizun egiten.
  - -Zer daukazun, zer ez daukazun.
  - -Eta abar...
- Zure lagunari buruzko informazioa eman.

# EUSKAL HERRIAN ZEHAR



Euskal Herria gure lurra, euskaldunon lurra da. Euskal Herria zazpi lurraldek osatzen dute. Iparraldean hiru lurralde daude, eta hegoaldean lau. Lurralde bakoitzak bere hiriburua dauka.

Euskal Herriko hiriburuak, hauek dira: Donostia, Baiona, Donibane Garazi, Iruñea, Bilbo, Maule eta Gasteiz.

***Euskal Herriko atlas batean, informazioa bilatu, eta idatzi hiriburu bakoitzaren izena dagokion lekuan. Gero, ondorengo eskema bete eta gelan azaldu.***



***Euskal Herriko atlas batean, ondorengo fitxa betetzeko informazioa lortuko duzu.***

| | HEDADURA km$^2$ | BIZTANLEAK | DENTSITATEA (biztanleak : hedadura) |
|---|---|---|---|
| **Lapurdi** | 875 | 204.601 | 233,8 |
| **Nafarroa Beherea** | | | |
| **Zuberoa** | | | |
| **IPARRALDEA** | | | |
| | | | |
| **Araba** | | | |
| **Bizkaia** | | | |
| **Gipuzkoa** | | | |
| **Nafarroa** | | | |
| **HEGOALDEA** | | | |
| | | | |
| **EUSKAL HERRIA** | | | |

***Taldeka, zeuen herriari buruzko mural bat prestatu. Horretarako hau egin behar duzue:***



– Euskal Herriko mapa bat egin orrialde txiki batean. Gero, zuen herri edo hiria kokatu eta kartulinan erantsi.

– Zuen herri edo hiriari buruzko informazioa bilatu:
- Noiz sortu zen.
- Hedadura, biztanleak eta dentsitatea
- Zein diren jarduera nagusiak: nekazaritza, abeltzaintza, industria, arrantza…
- Herriko pertsonaiak, historikoak eta oraingoak.
- Ibaiak, mendiak.
- Etab…

– Herri edo hiriko plano bat egin eta leku inportanteenak seinalatu.

– Zure herriko argazki batzuk erantsi eta behean informazioa idatzi.



# OSAGARRIAK

## 1. GALDERAK EGIN ETA ERANTZUNA EMAN




- Nongoa da Bego?
– *Altsasukoa da.*

- ______________________________
– ______________________________

- ______________________________
– ______________________________

- ______________________________
– ______________________________

- ______________________________
– ______________________________

## 2. NONGOTARRAK DIRA?




| TALDEA | JOKALARI BATZUK | NONGOTARRAK DIRA |
|---|---|---|
| Reala | | |
| | | |
| | | |
| Osasuna | | |
| | | |
| | | |
| Alaves | | |
| | | |
| | | |
| Athletic | | |
| | | |
| | | |

## 3. ESALDIAK EGIN

| | | | |
|---|---|---|---|
| BA<br><br>EZ | DAKIT<br>DAKIZU<br>DAKI<br>DAKIGU<br>DAKIZUE<br>DAKITE | -Irakur(ri)<br>-Jolas(tu)<br>-Abes(tu)<br>-Bizikletaz ibil(i)<br>-Gitarra jo<br>-Txineraz hitz egi(n)<br>-__________<br>-__________<br>-__________<br>-__________<br>-__________ | -TZEN<br><br>-TEN |

- Zuk ______________________________ ?
- Nire gurasoek ______________________________
- Nik ______________________________
- Aiton-amonek ez ______________________________
- Zuek ______________________________ ?
- ______________________________
- ______________________________

## 4. Hiztegiarekin jolasten







## 5. Zer ez dago Maite eta Julioren etxean?



- Maite eta Julioren etxean ez dago hozkailurik.
- Maite eta Julioren etxean ez dago telebistarik.
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________

## 6. Oraintxe bertan...

| | egin | joan | abestu | etorri | ibili | jo | egon |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ni** | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| **Hura** | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| **Gu** | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| **Haiek** | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| **Zu** | 29 | 30 | 31 | 32 | 33 | 34 | 35 |
| **Zuek** | 36 | 37 | 38 | 39 | 40 | 41 | 42 |

1.
2. Mendira noa.
3.
4.
5.
6. Gitarra jo**tzen ari** naiz.
7.
8.

# 2. ZER GUSTATZEN ZAIGU?







LEIRE ETA ANDER




MANU




BEGO eta bere aita




MIGUEL INDURAIN




## 1. Entzun eta ahoz erantzunak eman




- Nori gustatzen zaio kirola egitea?
- Zer du Blaik nahiago?
- Zer gustatzen zaie Leire eta Anderri?
- Zein musika mota gustatzen zaio Manuri?
- Zergatik gustatzen zaio saskibaloia Jazintori?
- Zer egitea gustatzen zaizu zuri?
- Zergatik?
- Dilistak ala marrubiak, zein gustatzen zaizu gehiago?

## 2. Hutsuneak bete

- Leire eta Anderri asko gustatzen___________ tenisa.
- __________ ez ___________ rock-a batere gustatzen.
- Zer gustatzen zaio Begori? ________________________
- Eta Blai txakurrari? __________________ eta _____________________
- Begok egunero ___________________
- Jazintok nahiago du mendira joan, eskalatzea gustatzen ______________
- Niri __________________ asko gustatzen _______
- Nire gurasoei ez _________ __________ gustatzen.

## 3. ZER GUSTATZEN ZAIO MANURI? ZER EZ ZAIO GUSTATZEN?

 

| | |
|---|---|
| -Pastelak<br>-Bananak<br>-Legatza<br>-Ogia<br>-Marraskiloak<br>-Bakailaoa<br>-Txerrikia | -Dilistak<br>-Garbantzuak<br>-Oilaskoa<br>-Letxuga<br>-Azukre beltza<br>-Angulak<br>-Salda |

| | GAUZA BAT | BAT BAINO GEHIAGO |
|---|---|---|
| Niri | zait | zaiZKIt |
| Zuri | zaizu | zaizkizu |
| Hari | zaio | zaizkio |
| Guri | zaigu | zaizkigu |
| Zuei | zaizue | zaizkizue |
| Haiei | zaie | zaizkie |

| | |
|---|---|
| **lagunARI** | *gustatzen **zaio*** |
| **lagunEI** | *gustatzen **zaie*** |

- *Manuri pastelak gustatzen zaizkio, baina ez zaio gustatzen oilaskoa.*
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________




## 4. ESALDI BAKOITZARI DAGOKION GALDERA EGIN

- *Guri legatza ez zaigu gustatzen.*
- *Nire gurasoei katuak gustatzen zaizkie.*
- *Niri goxokiak ez zaizkit gustatzen.*
- *Bai, haiei zinema asko gustatzen zaie.*
- *Leireri izozkiak ez zaizkio gustatzen .*
- *Asko gustatzen zaigu kirola.*
- ***Zuri telebista gustatzen zaizu.***
- ______________________________
- ______________________________

- ***Zuei legatza gustatzen zaizue?***
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________
- ______________________________

## 5. ZURE GUSTUAK ADIERAZI

| | | |
|---|---|---|
| Telebista ikusTEA<br><br>Gitarra joTZEA | gustatzen | zait<br>zaizu<br>zaio<br>zaigu<br>zaizue<br>zaie |







- ***Niri .............................. gustatzen zait***
- ________________________
- ________________________
- ________________________
- ________________________
- ________________________
- ________________________

- ***Niri ......................... ez zait gustatzen***
- ________________________
- ________________________
- ________________________
- ________________________
- ________________________
- ________________________

## 6. ONDOKOARI IRITZIA ESKATU



## 7. INDURAIN EGUNERO ENTRENATZEN DA. ASMATU ZER EGITEN DUEN MANUK




*Manu ia **egunero** goizeko zortzietan jaiki**TZEN** da.*



*Gero...*



*Begorekin...*



*Eskolan sartu baino lehen.....*



*Eskolatik irten ondoren.....*



*Arratsaldean, meriendatzen du eta.....*




*Zortzi eta erdietan......*




__________________________




__________________________



## 8. NOIZ EGITEN DUZU ZUK ONDORENGOA? MAHAIKIDEARI KONTATU

| ZER EGITEN DUZU EGUNERO? | |
|---|---|
| • *eskolara joan* | • *Ni egunero eskolara joaten naiz.* |
| • | • |
| • | • |

| ZER EGITEN DUZU ASTERO? | |
|---|---|
| • | • |
| • | • |
| • | • |

| ZER EGITEN DUZU HILERO? | |
|---|---|
| • | • |
| • | • |
| • | • |

| ZER EGITEN DUZU URTERO? | |
|---|---|
| • *nire urtebetetzea ospatu* | • *Nik urtero nire urtebetetzea ospatzen dut.* |
| • | • |
| • | • |

# 9. EUSKAL BIZIKLETA

**SAILKAPEN OROKORRA**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | M. Indurain | 120 or., 34 min., 45 seg. |
| 2. | T. Rominger | 3 : 20 tara |
| 3. | M. Lejarreta | 5 : 12 |
| 4. | J. Gorospe | 5 : 15 |
| 5. | A. Zulle | 7 : 35 |
| 6. | R. Virenque | 7 : 46 |
| 7. | P. R. Cabestany | 8 : 00 |
| 8. | M. Pantani | 8 : 34 |
| 9. | A. Olano | 8 : 21 |
| 10. | E. Berzin | 12 : 09 |
| 16. | A. Garmendia | 14 : 17 |
| 19. | A. González | 19 : 21 |
| 23. | J. R. Uriarte | 29 : 11 |
| 32. | M. Mauri | 37 : 10 |
| 47. | G. Bugno | 41 : 03 |







| POSTUA | NOR | ZENBAT MINUTUTARA |
|---|---|---|
| Lehenengoa | Indurain | – |
| | Rominger | Hiru minututara |
| Zazpigarrena | | |
| | Cabestany | |
| | | |
| | J.R. Uriarte | |
| | | Hamabi minututara |



## 10. ARRAZOIAK BILATZEN. ZERGATIK DAGO TRISTE TXAKURRA?



*Etxea apurtu zaio***LAKO**













***hezurra***
***arkakusoak***
***jana***
***hortzak***
***sagua***
***makuluak***

***galdu***
***eduki***
***burla egin***
***apurtu***
***amaitu***
***eraman***

## 11. EREDUARI JARRAITUZ, ESALDIAK EGIN



- *Anderrek gutxi jaten du,* ***horregatik*** *dago hain argal.*
- *Ander oso argal dago, oso gutxi jaten due***lako.**

- *Indurain asko entrenatzen da,* ***horregatik*** *irabazi du TOUR-a.*
- ______________________________________
  ______________________________________



- *Blai txakurrak txixa egin du zuhaitz baten ondoan,* ***horregatik*** *jarri diote isun bat.*
- *Blairi isun bat jarri diote* ________________
  ___________________________________***lako*****.**

- *Nire lagunak gutxi ikasten du, horregatik suspenditu du.*
- ______________________________________
  ______________________________________

## 12. AZPIMARRATUTA DAGOENA ALDATUZ, ELKARRIZKETA BERRIAK SORTU ETA ANTZEZTU




## 13. INKESTA BAT EGIN BESTE KLASEKO IKASLEEN GUSTUAK JAKITEKO. EMAITZAK TAULAN LABURTU




*1. Zer gustatzen zaizu gehiago, futbola ala saskibaloia?*

*2. Zergatik?*

*3.* ______________________________

*4. Zergatik*

*5.* ______________________________

*6. Zergatik?*

*7. Dilistak ala garbantzuak gustatzen zaizkizu gehiago?*

*8. Zergatik?*

| GALDERAK | ERANTZUNAK | ZENBAT neska | ZENBAT mutil | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| • ***Lehenengoa*** | *futbola* | | | |
| | *saskibaloia* | | | |
| • ________ | *mendia* | | | |
| | *hondartza* | | | |
| • ________ | *heavy* | | | |
| | *bakalao* | | | |
| • ________ | *dilistak* | | | |
| | *garbantzuak* | | | |



# EUSKAL HERRIAN ZEHAR

## EUSKARAREN EGOERA












| Eskualdeak | Euskara Maila | | |
|---|---|---|---|
| | *Euskald.* | *Ia Euskald.* | *Erdaldunak* |
| Arabako Ibarrak | 89 | 428 | 3325 |
| Arabako Lautada | 16080 | 43531 | 152845 |
| Arabako Mendialdea | 172 | 344 | 2643 |
| Arratia-Nerbioi | 11123 | 3282 | 6543 |
| Bidasoa Beherea | 20429 | 13154 | 32017 |
| Bilbo Handia | 92746 | 194226 | 603982 |
| Deba Beherea | 32563 | 8393 | 18036 |
| Deba Garaia | 38808 | 8985 | 16276 |
| Donostialdea | 98625 | 71277 | 134975 |
| Durangaldea | 36515 | 17170 | 35398 |
| Enkartazioak | 1233 | 4372 | 23596 |
| Erribera Garaia | 165 | 554 | 49974 |
| Errioxa Arabarra | 662 | 1033 | 7505 |
| Estellerria | 1377 | 1461 | 31673 |
| Gernika-Bermeo | 33676 | 5466 | 5403 |
| Goierri | 36342 | 9105 | 19985 |
| Gorbeia Inguruak | 1734 | 767 | 2763 |
| Iruñerria | 15446 | 20852 | 225736 |
| Kantauri Arabarra | 4258 | 7478 | 21890 |
| Markina-Ondarroa | 22806 | 2365 | 1700 |
| Nafarroa Erdialde-ko Ekialdea | 555 | 910 | 27288 |
| Nafarroako Ipar-mendebaldea | 31906 | 6189 | 14050 |
| Pirinioaldea | 1417 | 1487 | 10477 |
| Plentzia-Mungia | 17120 | 6383 | 11253 |
| Tolosaldea | 30142 | 6541 | 7533 |
| Tuteraldea | 281 | 831 | 66843 |
| Urola-Kostaldea | 48494 | 6336 | 7096 |
| Araba | 22995 | 53581 | 190981 |
| Bizkaia | 215219 | 233264 | 687875 |
| Gipuzkoa | 305403 | 123691 | 235918 |
| Nafarroa | 51147 | 32284 | 426041 |
| E.Herriko Hegoaldea | | | |

Aurreko orrialdean, probintzia bakoitzeko portzentaiak kalkulatu eta grafikoki antzeztu dira. Badakizu nola?

$$\text{ARABAN} \quad \frac{\text{Euskaldunak (22995) X 100}}{\text{Hiztunak (guztira)}} = \%\ 8{,}5$$





Taula bete ondoren, Euskal Herriko Hegoaldeko portzentaiak kalkulatu eta sektore-grafiko honetan irudikatu.



***Orain, zure eskualdeko sektore-grafikoa egin.***



# OSAGARRIAK

## 1. ESALDIAK EGIN

| | |
|---|---|
| Mikel / autoa / apurtu | ***Mikeli autoa apurtu zaio, horregatik doa oinez.*** |
| Nire laguna / koadernoa / ahaztu | ______________________________ |
| Zu / pastelak / gustatu | ***Zuri ez*** ______________________________ |
| Zure gurasoak / etxea / erori | __________ ***horregatik erosi dute kanpin-denda bat.*** |
| Gu / dirua / bukatu | ______________________________ |
| Hura / zapatak / busti | ______________________________ |
| ______ / _______ / ______ | ______________ ***zaizkie, horregatik*** ________ |
| ______ / ______ / ______ | ______________ ***zaizue,*** ____________ |
| ______ / _____ / gertatu | ______________________ ***??*** |

## 2. GUSTATZEN ZAIT / NAHIAGO DUT



***Niri irakurTZEA gustatzen zait, BAINA nahiago dut futbolean jolastu.***



***Anderri*** __________ ________***TEA***
______________________________
____________________




***Zuei*** ______________________________
______________________________
______________



***Bere gurasoei*** _________ ________
______________________________
______________

***Guri*** ______________________________
______________________________
______________

## 3. AUKERATU ETA HUTSUNEAK BETE

***Maitek, Nire gurasoei, Guk, Lagunek, Lagunari, Ni, Koldo, Lagunak, Nik, Zuei, Guri***

| | | | |
|---|---|---|---|
| ______ | nahiago du mendira joan. | ______ | ahaztu zaie afaria ordaintzea. |
| ______ | egunero joaten naiz mendira. | ______ | askotan ez dut etxekolanik egiten. |
| ______ | ez zaio “bakalao”a gustatzen. | ______ | ez dugu ogirik ekarri. |
| ______ | etorriko dira jaialdia ikustera. | ______ | telebista ikusten ari da. |
| ______ | interesgarria iruditu zaigu. | ______ | ez dute gitarra ekarri. |

## 4. ERANTZUNA EMAN



- Nola du izena Leireren amak?
- Non daude?
- Zer eskatu du Karmelek?
- Zer du nahiago Leirek?
- Zer gustatzen zaio Ramontxuri?
- Nor da Felipe?
- Zergatik dago haserre?
- Zergatik Leire ez da eskolara joan?
- Noiz gertatu da hau, goizean ala arratsaldean? Zergatik dakizu hori?

## 5. BINAKA ANTZEZTU

